



perfektuaEZperfektua

Jarrera, flashak, publizitatea, haustea, moda, militantzia, bataila-gorputza, fokuak, zure arropa, nire orrazkera, ironia, aktibismoa, barreak, begiradak, ekintza eta protagonismoa.
Dena da perfektuaEZperfektua
Zu ere hala al zara?

PERFEKTUEZPERFEKTUA

HELBURUAK

- Norberaren irudia sormen- eta protesta –tresna gisa **aztertzea eta baloratzea.**
- Gazteen artean **parte-hartzea, sormena eta hiritar-kontzientzia** sustatzea.
- Adin txikikoak **ARTIUMarekin harremanetan jartzea**, haien erreferentzia-lekua izan dadin.

METODOLOGIA

- Adin txikikoak Artium-arekin harremanetan jartzea.
- Jarduera parte hartzailea eta sortzailea lortzea.
- Gizarte-agenteen eta gazteen arteko bitartekaritza-bideak ezartzea.
- IKTBen erabilera egokia sustatzea.

PARTE-HARTZAILEAK

- 10 laguneko nerabe-taldea.

IRAUPENA

- 2006ko azaroak 25a.
- 3 orduko saio bakarra.





perpektuEZperpekturen cartela.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau ARTIUMen egin zen, Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan, hain zuzen ere eta **Egingo al dugu zita ARTIUMen?** programaren barruan kokatzen da. Nerabeei zuzendutako programa da eta museoko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Sailak antolatzen du.

Lantegia 2006ko azaroaren 25ean egin zen.

1. perfektuaEZperpektua

Lantegi honetan, norberaren irudia lantzen da sormen- eta protesta –gai gisa. Irudia subjektibotasunarekin, bestearekin, niarekin eta ingurunearekin ditugun harremanekin (mugekin) lotzen dugu.

PerpektuaEZperpektua lantegiak **Hannah Wilke** izeneko artista hartzen du erreferentziatza, garai hartan museoan haren erakusketa baitzegoen ikusgai: “Exchange Values”.

Hannah Wilkek bere gorputzarekin eta irudiarekin jolastu zuen sormena eta protesta lantzeko eta perpektuaEZperpektua lantegiak gauza bera egitea proposatuko die parte-hartzaileei. Gazteek euren gorputzaren gaitasunak eta aukerak aztertuko dituzte, baina beti ere modu kritikoan, komunikazioa, identitatea, autoafirmazioa eta bestearekiko harremanak zalantzan jarriz eta birplanteatuz.

Nerabezaroan gorputza etengabeko gudu-zelaia da, barrutik zein kanpotik eta horregatik da bizitzaren aro honetan gai nagusietako bat.

2. HELBURUAK

Hannah Wilkeren erakusketak ematen digu babesak, helburu zehatzei aurre egiteko eta bide batez, “Egingo al dugu zita ARTIUMen?” programaren helburu orokorrekin uztartzeko aukera eskaintzen digu:

- Adin txikikoak ARTIUMarekin harremanetan jartzea, euren erreferentzia-lekua izan dadin.
- Partaideen artean jarrerak parte-hartzailea eta sortzailea lortzea.
- Gazteek esperientzia errepika dezaten, kako papera beteko duten jarduerak proposatzea.
- Norberaren irudia sormen- eta protesta –gai gisa aztertzea eta baloratzea.

Bestalde, AMASTÉk helburu orokorrak ditu IA 18 lan-programaren barruan egiten dituen jarduera guztietan:

- Gazteengan parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.
- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko bitartekaritza-bideak ezartzea.



Argazki saioa.



- IKTbak modu konstruktiboan erabiltzea, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Gaur egungo gazteen tipologia eta interesak aztertzea (imaginarioa, nahiak, etab.).



Ezagutzeko ekintza.

3. EDUKIAK

Zer landuko dugu? Gaiak:

- Nola begiratzen dut nire burua, nola begiratzen naute eta nola begiratzen ditut?
- Zeintzuk dira gure nahiak, mugak eta desioak?
- Zer lortu dezakegu gaur egun gure gorputza bitarteko gisa erabiliz?
- Zer eragin dute komunikabideek, inguruneak eta gizarte-testuinguruak?
- Nola eraikitzen dira inguruan ditugun irudiak, publizitatea, telebista...?
- Nola eraikitzen dut nik neure nortasuna?

4. METODOLOGIA

Lantegi honetan, bakoitzak autoerretratu, collage edo kartel bat egingo du, generoa, identitatea eta haustea bezalako gaien inguruan jolastuz, bilatuz, adieraziz eta hausnarketa eginez. Lantegia erabat praktikoa izango da eta hausnarketak jarduerak egin ahala planteatuko dira.

Emitza paregabeak lortzea baino gehiago lan-prozesua izango da nabarmenduko duguna.

- Talde-lana saio presentzialetan.
- Banakako lana eta jarraipena (antolatzaileek egingo dute) astean zehar.
- Taldearen kohesioa sendotzeko ezagutza- eta bizikidetzak – dinamikak.
- Esperientziaren oroigarri izango den material "fetitxea" (taldearen irudiekin egindako txapak, saioetan landutakoak, parte-hartzaileen pertsonaia-txartelak, etab.) lortzera bideratutako ekintzak.



Kartelak diseinatzen.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 10 lagun

Adina: 16-18 urte

Sexua: Talde mistoa

Lantegiko parte-hartzaileak ARTIUMek berak proposatu zituen, museoko bestelako jardueretan ere parte hartu ohi dutelako.

2 dinamizatzaile ere izan genituen.



Egindako lanen proiektzioa.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2006ko azaroak 25, larunbata.

Azaroak 253ordu (16:00etatik 19:00etara)

7. KOKAPENA

Gasteizko Aritum-eko lantegi-gelak.

8. MATERIALA

Materiala:

- Photo call: kamera digitala, fokuak, tripodeak.
- Ordenagailua
- Txartel-irakurgailua
- Bideo-proiektagailua
- Inpresora
- Fotokopiagailua
- Bulegoko materiala eta material suntsikorra: kartoi meheak, itsasgarria, errotuladoreak, koloretako espraiak, letraset-a, guraizeak.
- Aldizkariak (LOKA Magazine, Cinemanía, Rolling Stone, 40 principales, TodoBici, TodoMotor, SuperPop, You, Ragazza, 7Siete, Muy Interesante, QUO, El Jueves...).
- Hannah Wilkeri buruzko materiala: katalogoa, obren irudiak, etab.
- Bestelako antzeko irudiak.



Autoerretrauak.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



Taldea erretratzen.

10. DOKUMENTAZIOA

Lantegi hau egiteko hainbat dokumentu begiratu dira eta horietako batzuk lantegian erabili dira kontsulta-material gisa. Lantegiaren erreferentzia nagusia ARTIUMen momentu hartan zegoen erakusketa izan zen.

- Hannah Wilke artistaren katalogoa eta erakusketa: "Exchange Values".

11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. SAIOA

12. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	<p>Norberaren irudia sormen- eta protesta –tresna gisa aztertzea eta baloratzea. Gazteen artean parte-hartzea, sormena eta hiritar-kontzientzia sustatzea. Adin txikikoak ARTIUMarekin harremanetan jartzea, haien erreferentzia lekua izan dadin.</p>
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Ezagutza-jarduera: pertsonaia-txartelak. Taldearekin lehen kontaktua.	Aurkezpenak. Zer egingo dugu eta nola lan egingo dugu?	
20 min.	Hanna Wilke: erakusketa ikusi eta material grafikoa erakutsi.	Erakusketari bisita egin eta identitatearen eta norberaren irudia erabiltzearen inguruko eztabaida.	<ul style="list-style-type: none"> - Erakusketa. - Katalogoa. - Irudi osagarriak. - Argazki-kamera. - Fokuak. - Tripodeak. - Ordenagailua - Proiektagailua.
50 min.	Argazki-saioa.	Bakoitzak 5-10 irudi sortu.	
20 min.	Askaria.	Sortutako irudien gaineko hausnarketa lasaia.	<ul style="list-style-type: none"> - Espriak. - Letraset-a. - Errotuladoreak. - Aldizkariak. - Kartelak eta posterrak.
50 min.	Autoerretatua/collage-a/kartela.	Kartelaren diseinua.	
30 min.	Komunean jarri.	Lanen erakusketa, ondorioak eta sortutakoa ageriko nola egin erabakitzea.	

Ezagutza-jarduerak ----- 20 min.

Parte-hartzaile bakoitzak bere izena duen pegatina jarriko du soinean.

Pertsonaia-txartela: Pertsonaia-txartela osatzeko norberaren autoerretatua egin. Pertsonaia-txartela bakoitzean honako informazioa gehituko dugu:

- Izena
- Adina
- Egitea atsegin duzun 3 gauza.
- Definitzen zaituen kolorea (ez atsegin duzuna, baizik eta definitzen zaituena).
- Definitzen zaituen animalia.
- Definitzen zaituen kantua.
- Definitzen zaituen janaria.
- Definitzen zaituen esaldia.

Bakoitzak bere pertsonaia-txartela labur azalduko du (irakurri egingo du eta zalantzarik edo iruzkinik balego, erantzun egingo da).

**Hannah Wilke: erakusketa eta teoria-----20 min.**

Erakusketa ikusiko dugu lantegian erabilgarri izango zaizkigun irudietan erreparatuz. Lantegian zehar artistaren zenbait obra ere aztertuko ditugu.

Argazki-saioa-----50 min.

Argazki-estudioan (ARTIUMek duen lantegietarako gelan), parte-hartzaile bakoitzak bere gorputza erabiliz, historia eta kontu pertsonalak islatzen dituzten irudiak sortuko ditu; begiratu, jolastu, bilatu, hautsi eta norberaren ideien arabera identitateak sortu. Partaide bakoitzak 5-10 argazki egingo ditu. Prozesuan zehar ideia hauek guztiak parte-hartzaileekin komentatuko dira eta irudiak horman proiektatuko ditugu.

Askaria-----20 min.

Askarian zehar argazki-saioan sortutako irudien gainean hitz egingo dugu eta autoerreturatuetan nola erabiliko diren pentsatzen hasiko gara.

Autoerreturua/collage-a/kartela-----50min.

Saioan egindako irudi gustukoena aukeratuko dituzte autoerreturua/collage-a/kartela egiteko. Kartelak espraiekin, letrasetekin eta bestelako materialarekin landuko dira. Hannah Wilkeren zenbait kartel, kontzertuetako kartelak eta publizitatea hartuko dira adibide gisa. Bakoitzak erabakiko du bere kartela nola egin (mezua, irudia, forma, etab.) eta horretarako, besteek euren zein irudi ikustea nahi duten izan beharko dute kontuan: zein irudi erakutsi, zein mezu helarazi, zein jarrera agertu, etab.

Komunean jarri-----30min.

Sortutako material guztia ikusiko dugu eta lantegian zehar ateratako ideiak eta ondorioak komentatuko ditugu denen artean. Emaitzak bakoitzaren itxaropenak bete dituen ala ez eta lantegiko emaitzak agerian jartzeko lanekin zer egin nahi dugun (kalean itsatsi, etxean, bestelako lekuetan...) eztabaidatuko dugu.